

Idoia Asurmendik 'Ilun eta abar' estreinako diskoa aurkeztuko du lurretako plazan

Kultura • Idoia Asurmendi musikari aramaioarrak 'Ilun eta abar' diskoa kaleratu du udaberrian, lehenengoa bere ibilbidean. Kulturarentzat sasoirik onena izan ez arren, zortedun sentitzen da Asurmendi. Izan ere, orain arteko kontzertuetan bete egin du aretoa, eta udarako ere "kontzertuz beteta" du agenda. Lurretako kontzertua 19:00etan hasiko da; plazan izango da. • 24



Zornotza Saskibaloitaldeari harrera egin diote udaletxean, egin duen lana zoriontzeko

Zilarrezko Ligatik Urrezkora igotzeko zorian egon da



Bere mailako talderik gehienek baino aurrekontu eta baliabide xumeagoagaz, Zornotza Saskibaloitalka balentria handi baten atarian geratu da. Igo barik geratu izanak ez du inolaz ere orbantzen euren denboraldi bikaina. Horrela ulertu du Zornotzako Udalak ere, eta oraintsu futboleko Bigarren Mailara igo den Amorebieta klubari emaniko tratu berdina eman dio udaletxean harrera eginda. • 26

Regoyos berriro ere Durangon



Dario de Regoyos artista asturiarrak makina bat koadro margotu zuen Durangaldean. 1905ean eta 1907an Durangon egin zituen egonaldiak oso emankorrak izan ziren artistaren ibilbide profesionalean, Garazi Arrizabalaga Arte eta Historia Museoko zuzendariak dioenez. Sasoi hartan margoturiko bederatzitan jaso ditu Durangoko Museoa erakusketa batean, tartean museoak berak erosi berri duen 'Merkatua Durangon'. • 2-3

Lagun talde bat prest dago Tabirakoren gidaritza hartzeko

Kirola | Hauteskunde prozesuan hautagaitzarik aurkeztu ez zenean, alarma gorria piztu zen klubean. Azkenean, klubaren gidaritza hartuko duen 14 bat laguneko taldea sortu da. • 27



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika eta ingeles ikastaroak.
- ERDI MAILAKO zikloetarako sarbide probak

BERRIA!



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Ekainaren 21etik 28ra

Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

“Euskal Herritik kanpora joaten zenean, Regoyosek askotan aipatzen zuten hemengo paisaiak eta koloreak onenak zirela margotzeko”

Durangoko Arte eta Historia Museoa 'Darío de Regoyos, Durangoko begirada inpresionista' erakusketa antolatu du. Bisita gidatuak ere prestatu dituzte



Museoko zuzendaria Regoyosek Urkiolan margotu zuen koadroaren ondoan.



'Merkatua Durangon'

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo

Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendaria

BERRIZ | 1984

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko Arte eta Historia Museoa Darío de Regoyosek XX. mende hasieran Durangon, Iurretan, Elorrioren eta Abadiñon margoturiko bederatzi koadro bildu ditu erakusketa batean. Ekimen hau baliatu dute museoak erosi berri duen 'Merkatua Durangon' koadroa jendaurrean aurkezteko.

Nor zen Darío de Regoyos eta zein lotura zuen Durangoz?

Pintore inpresionista zen, Espainian garrantzi handikoa. Ribadesellan jaio zen, Asturiasen. XX. men-

de hasieran, bere emazteak arazo psikologiko bat izan zuen eta Arrasateko psikiatra batengana etorri zen. Regoyosek leku bat bilatu zuen sasoi hartan handik gertu bizitzeko bere seme-alabekin. Azkenean, Durangora etorri zen, 1905ean. 1907an berriro itzuli zen hona.

Regoyosen arteak zein berezitasun dauka?

Darío de Regoyosek Carlos de Haes artistagaz ikasi zuen, Madrilen. Gero, Belgikara joan zen, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran. Han ezagutu zuen garai hartako mugimendu artistikoa, inpresionismoa. Camille Pissarro artista, esate baterako, bere laguna izan zen. Horrek bere estiloa markatu zuen eta figura garrantzitsua izan zen. Hasieran, puntillismoa landu zuen, eta gero bere marrazteko era azkartu zuen

eta pintzelada luzeagoak erabiltzen zituen.

Durangon egon zen. Zer dakigu sasoi hartaz?

Regoyosek gutun asko idazten zituen, eta horietan informazioa aurkitu daiteke. Losadari zein Zuloagari idatzi zien, esate baterako. Hor agertzen da 1905ean Artekalen bizi izan zela, eta 1907an Ermodo kalean.

Durangon bizi zela, hainbat koadro margotu zuen.

Bere gutunetan idatzi zuen Durangon bizi izan zen urte biak oso produktiboak izan zirela. Oso gazte sentitzen zen, eta pintatzeko gogoagaz. Euskal Herritik kanpora joaten zenean, Regoyosek askotan aipatzen zuten hemengo paisaiak eta koloreak onenak zirela margotzeko. Durangoko kaleak margotu zituen, pertsona gutxi batzuekin.

Izan ere, ez zen pertsonak margotzekoa. Bestetik, paisaiak ere magortu zituen, Urkiola esate baterako. Anbotoko mendilerroa eta Urkiola ingurua margotzea inpresionismoa lantzeko modurik onena zen berarentzat. Izan ere, inpresionismoa argia da, eta argia haitzean islatzen da.

Durungaldean marrazturiko koadroen inguruan zer azpimarratuko zenuke?

Durungaldean koadro asko marraztu zituen. Ziurrenik Durango da gehien errepresentatu duen herria. Hala ere, bere fama aprobetxatuz guran, beste pintore batzuek ere Regoyosen izenean sinatzen zuten. Beraz, bere sinadura izan arren, originalak ez diren koadro asko daude.

Zelan sortu da proiektua?

Merkatua Durangon koadroa erosteko erabaki genuen gainerako koadroak jendeari erakustea, bera bakarrik beharrean interesgarria izango zelako Durangoko egonaldi horretako beste lan batzuekin erakustea. Mercedes Prado komisarioagaz, beste lan batzuk batu ditugu. Batzuk bildumazale partikularrenak dira eta beste batzuk Bilboko Arte Ederren Museokoak, BBK Fundaziokoak eta Kutxa Fundaziokoak.

Museora datorrenak zer aurkituko du?

Durangoko egonaldian margoturiko bederatzi koadro aurkituko ditu. Urte hartako ibilbidea ikusten da bertan. Paisaiak beretzat zuten garrantzia ikusten da, baita herriko bizitzak zuten garrantzia ere. *Merka-*

tua Durangon horren adibide argia da. Bertan, andre baserritarrak euren produktuak saltzen ikusten dira, eta gizonezkoak euren artean berbetan. Dokumentu historiko bat da. XX. mendearen hasierako Durango erakusten digu.

Ematen du goitik ateratako argazki bat dela.

Koadro horretan tranpatxo bat dago, perspektiba bi erakusten dituelako. Dimentsio horretan dena sartzeko errealitatea desbirtuatu egiten da.

Koadroaren aurkezpenean, udal arduradunek nabarmendu zuten sasoi hartako emakume beharginen irudi bat zela. Hori izango zen autorearen intentzioa sasoi hartan?

Errealitate bat da. Historiako dokumentuetan agertzen ez dena koadro honetan agertzen da. Emakumeak lanean eta gizonak berbetan. Hala ere, guk, orain, gaur egungo ikuspegia aplikatuta, horrela interpretatu dezakegu.

'Merkatua Durangon' koadroa erosteak eztabaida piztu du.

Museo baten misioak hauetxek dira: kontserbatzea, zabalkundea egitea eta koadroak jasotzea, dohaintza moduan edo erosita. Azken urteetan, hainbat koadro jaso dugu dohaintzan, eta horiekin guztiekin erakusketa bat antolatuko dugu laster, eskerrak emateko. Erosketei dagokienez, 1999tik 22 urte pasatu dira koadrorik erosi barik. Beraz, bazen momentua museoak erosketak egiteko. Koadro hori erosteko erabili den dirua museo dirua da. Aukera hau izan dugu, eta ez genuen galdu gura.

Regoyos, kalean pintatzen zuen artista

Margolari inpresionistak herritarrei atenzioa ematen zien kalean margotzen zuenean

DURANGO • JONE GUENETXEA

Darío Regoyosen presentziak herritarren interesa pizten zuen Durangaldean. Paisaiak kalean margotzen zituen, bertatik bertara. Eskumako argazki horretan, margolaria Pinondon dago, San Agustin aldera margotzen. Artista herritarrez inguratuta dago, gazte zein heldu. Zein paisaia margotzen aritu zen? Behean ikusten den San Agustineko irudia. Castrejon jauregia eta Arte eta Historia Museoa ikusten dira atzean. Castrejon jauregia eraitsi egin zuten, eta leku horretan gaur egun Vicente Larrearen eskultura dago, museoaren eta Benita Urbarena parkearen artean.

Kaleko lanari estudiokoa ere gehitzen zion Regoyosek. Gutun batzuetan jasota dagoenez, lan hori ez zuen Artekaleko edo Ermodoko etxeetan egiten. Iurretan estudio bat zuen, margolanak han lantzeko.

Euskal Herrian barrena

Regoyosek oso gogoko zuen Euskal Herria, eta, batez ere, bertako argia. Baina Durangora etorri aurretik, pintoreak Euskal Herriko beste leku batzuk bisitatu zituen. 1890ean Donostian finkatu zen,

eta estatuan egin zuen lehenengo erakusketa Arte Ederren Erakusketan aurkeztu zuen, Parisko Independenteen erakusketan. Bost urte geroago, Begoñako Basilikan ezkondu zen. Euskal Herriagaz zuen loturagaz jarraituz, 1897an *Album Vasco* grabatuen liburua argitaratu zuen. 1899an Donostiara joan zen bizitzera. Sasoi hartan, *España Negra* liburua argitaratu zuen.

Kaleko lanari estudiokoa ere gehitzen zion. Iurretan estudio bat zuen, margolanak bertan lantzeko

Museoko arduradunek diotenez, Regoyosek inguruan margoturiko hainbat artelan dago Euskal Herrikan kanpora. "Erakusketan honetan, gertuen ditugun margolanak batu ditugu", esan dute.

Bisita gidatuak martxan

Erakusketa zabaldu dutenetik, jendetza joan da Arte eta Historia Museora Regoyosen artelanak ikustera. Beraz, antolatzaileak

pozik daude erakusketak izan duen harreragaz. Gainera, eguaztenetan martxan ipiniriko bisita gidatuak bete egin direnez, eguaztenetan ere egingo dituzte.

Bisita gidatuak

Euskaraz - Doan


- Ekainak 10: 18:00etan eta 19:00etan.
- Ekainak 24: 18:00etan eta 19:00etan.

Gaztelaniaz - Doan

- Ekainak 3: 18:00etan eta 19:00etan.
- Ekainak 17: 18:00etan eta 19:00etan.
- Uztailak 1: 18:00etan eta 19:00etan.

IZEN EMATEA: 946030020

museo@durango.eus



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

IZEN-EMATEA

Maiatzak 31tik ekainaren 18ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> •Mekatronika Industrial •Automatizazioa eta Robotika Industrial •Fabrikazio mekanikoko Produzioaren Programazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/ogh
943 71 80 09
rigarza@mondragon.edu

www.mondragon.edu/gmhz
664 298 704 • 664 298 683
orientazio.lhm@mondragon.edu

Durangoko 19 tabernak sarea osatu dute edalontziak berrerabiltzeko

Eramateko kafea eskatzerakoan sortzen diren hondakinak gutxitu gura dituzte egitasmoagaz. Dendak Baik, Durangoko Udalak eta Irri Sarrik bultzatu dute egitasmoa

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko 19 tabernak erabilera bakarrek edalontziak berrerabilgarriak diren beste ontzi batzuekin ordezkatu dituzte. Dendak Baik merkatarien elkarteak aurkeztu du egitasmoa, Durangoko Udalgaz elkarlanean. Edalontzi berrerabilgarriak Irri Sarri etxeak ipini ditu. Hain zuzen ere, enpresa hau da egitasmoaren jatorrizko sortzailea.

Eramateko kafea

Eramateko kafea eskatzerakoan erabili ahalko dira edalontzi berrerabilgarriak. Horretarako, bezeroak euro bi ordainduko ditu baso bat lehenengoz erabiltzearen truke. Gerora, euro biak berreskuratu gurako balitu, egitasmoaren parte den edozein tabernatan bueltatu beharko du edalontzia bezeroak, eta dirua jasoko du trukean. Horrez gai-

nera, zerbitzua erabiltzen duten bezeroek beste abantaila bat ere izango dute. Eramateko bost kafe eskatzen dituenak, seigarren kafea debalde eskuratu ahalko du. Horretarako, txartel bat eskainiko diote bezero bakoitzari, basoa lehenengoz jasotzeagaz batera. Dendak Baik adierazi du baso berrerabilgarri batez "erabilera bakarrek 400 edalontzi" ordezkatu daitezkeela.



Egitasmoaren aurkezpena asteon egin dute, Durangoko Ai Ama tabernan.

Durangoko elkarteek ia 295.000 euroko diru poltsa dute prest kirol, kultura eta euskara jardueretarako

Durangoko Udalak 293.500 euro ipiniko ditu herriko elkarteek antolatzen dituzten ekintzak laguntzera. Euskara sustatzeko jardueretarako, kultur ekintzetarako eta 75 urtetik gorako herritarren etxebizitzak eraberritzeko erabiliko da dirua

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak hainbat diru laguntza kaleratu du herriko elkarten ekintzetarako eta "herri lez aurrera begiratzeko". Zehatzago esanda, 293.500 euro ipiniko ditu herriko elkarteek antolatutako gura lituzketen ekintzak finantzatzeko. Gutxi gorabehera, honako egitasmoak lagunduko dituzte diruz: kirol jarduerak, kirol fitxak eta arbitrajeak, ohiko eta ezohiko kultur ekimenak, euskara sustatzeko ekimenak, aldizkako argitalpenak, euskarari lotutako bekak, negozioetako kanpoko errotuluak eta web orriak euskaraz ipintzeko gastuak, gizarte arloko ekintzak, eta gutxienez 75 urte dituzten pertsonen etxebizitzak eraberritzeko lanak.

Durangoko udal agintarien esanetan, apurka-apurka "etorkizunari modu baikorren begiratzeko unea da. Herri lez aurrera begiratu behar dugu, eta diru laguntza hauek norabide horretan lagundu dezakete", esan

dute. Diru laguntzak eskatu gura dituenak Herritarrentzako Arreta Zerbitzura jo beharko du. Horretarako hitzordua 639 58 00 23 telefono zenbakira deituta eskatu beharko da. Kontuan hartu

beharreko beste datu bat da diru laguntzak eskatzeko eskariak ekainaren erdialdetik aurrera iraungiko direla. Horri buruzko xehetasun gehiago udalaren web orrian topatu daiteke.



Kopuruak

Diru poltsetariko batzuk, kategoriaren arabera

- Umeentzako eta gazteentzako ekintzetara, 18.000 euro.
- Kirol jarduerak antolatzeko, 35.000 euro.
- Ohiko kultur ekitaldietarako, 78.000 euro.
- Euskara sustatzeko ekintzetara, 38.000 euro.
- Euskarari loturiko beketarako, 14.500 euro.
- 75 urtetik gorakoak diren herritarren etxebizitzetan obrak egiteko, 15.000 euro



Errotarixuenako txakurgunea lekuz aldatuko dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak akordioa lortu dute trenbidea izandakoaren lur zati bat libre uzteko. Otamotzena parkearen aurreko lursaila libratuko dute, eta, horren ondorioz, udalak bertara eramango du Errotarixuenako txakurgunea. Lekualdaketa horregaz, udalak "bizikidetzaz arazoak" konpondu gura ditu. Libre geratutako zati berriak 800 metro karratuko txakurgunea ipintzea ahalbidetuko du.

Hau ez da ETSren eta Durangoko Udalaren arteko lehenengo akordioa. Orain hilabete batzuk TADU enpresaren pareko trenbide zati bat libre uztea adostu zuten. Berdegune bat ipiniko dute han.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko ekainaren 4a
19. urtea - 849. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Urbanizazio lanen aurreikuspena.

Ogenbarrena auzoa berritzeko lanak urte amaieran hasia aurreikusi dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak jakinarazi duenez, Ogenbarrena auzoa birmoldatzeko hirugarren eta azken fasea urte amaieran hasiko da. Lanek zazpi bat hilabete iraungo dute martxan ipintzen direnetik. Andoni Agirrebeitia alkateak jakinarazi du irisgarritasunari loturiko hainbat lan egingo dutela bertan. Adibidez, etxebizitzaren arteko espaloiak zabaldu eta aparkalekuak gehituko dituzte. Bestalde, Ogenbarrena kaleko espaloiak zabalduko dituzte, 2. eta 4. atarrietako bizi-lagunek igogailu bana ipintzeko aukera izan dezaten. Lanek 1.500.000 euroko aurrekontua izango dute gutxi gorabehera.

Zornotzako Konbenio kalea eraberritzen hasi dira

Irisgarritasun eta saneamendu arazoak konponduko dituzte. Udalak 1.100.000 euroko inbertsioa egingo du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala "ereldaketa integrala" egiten hasi da Konbenio kalean. Batetik, ur-hornidurari eta saneamenduari loturiko arazoak konponduko ditu. Bestetik, irisgarritasunari loturikoak. Udalak dioenez, bertako mugikortasuna "nabarmen" hobetuko da. Konbenio kalea "erdigunean dagoen arren", oinezkoen fluxu handirik ez

duela dio udalak. Hori "espaloiak estuak direlako" gertatzen dela dio. Hori dela-eta, "askotan" jasotako keak, eta egoera horri "behin betiko irtenbidea" eman gura dio lanekin. Eraberritze lanetarako aurrekontua 1.100.000 eurokoa izango da eta sei hilabete barru dena amaituta egotea aurreikusi dute. Astea hastegaz batera ekin zieten eraberritze lanei.



Konbenio kaleak honako itxura hau hartuko du gutxi gorabehera.




Garaiko Udalak 700 bonu kaleratu ditu herriko ostalaritza sustatzeko

Bonu horietako 500 herriko taberna eta jatetxeetan erabili ahalko dira. Gainerako 200ak, landetxeetan. Garaiko Udalak 11.500 euro ipini ditu egitasmorako

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak *Garai Bizarazi* egitasmoa ipini du martxan. 700 bonu kaleratu ditu herriko establezimenduetako kontsumoa sustatzeko. Horretarako, bonu mota bi kaleratu ditu. Batetik, taberna eta jatetxeetan erabili beharrekoak. 25 euroko bonuagaz, herritarrek 40 eurora arteko gastua egin ahal-

ko dute tabernetan. Beste bonuak landetxeetan erabiltzekoak dira. 40 euroko bonuagaz 60 eurora arteko zerbitzua estali ahalko da. Udalak adierazi du eskatzaile bakoitzak mota bakoitzeko bina bonu eskuratu ahalko dituela gehienez. Bonuak udaletxean eta kanpainara atxikitako negoziotan daude eskuragarri.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta

ELORRION, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

Atxondoko igerilekuak ekainaren 24an zabalduko dituzte, edukiera mugatuagaz

Atxondoko Udaletik azaldu dutenez, igerilekuek edukiera mugatua izango dute segurtasun neurriak betetzeko, eta txanda bi egongo dira, goizean bat eta arratsaldean bestea

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 24an zabalduko dituzte Atxondoko igerilekuak, eta irailearen 6ra arte egongo dira zabalik. Atxondoko Udaletik zabaldu dutenez, igerilekuek edukiera mugatua izango dute eta txanda bi egongo dira, goizean bat eta arratsaldean bestea. Gainera, pandemiaren ondorioz une bakoitzean indarrean

dauden segurtasun eta higiene neurriak beteko direla azaldu dute.

Udal arduradunek aurreratu dutenez, aste honetan amaituko da instalazioen lizitazio eta ustiapen epea, baita igerilekuetako tabernaren kudeaketa ere. "Amaitu ditugu hobekuntza lanak, eta behin zerbizua esleituta, gune osoa seinaleztatu da berriro, segurtasun

protokolo baten arabera, eta abonu kanpainari hasiera emango diogu", aurreratu du Xabier Azkarate alkateak.

Bestalde, apirilean hasi zituzten lanei eskerrak joan zen udan atzemandako akatsak konpondu dituztela azaldu dute. Atxondoko Udalak 80.000 euroko inbertsioa egin du lanok egiteko.



Atxondoko igerilekuko konponketak amaitzen dabilza.

Berrizko jaietan berdintasuna bultzatzeko erabilitako estrategiak aztertu ditu Emakundek

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskal Herriko bederatzi herriko jaietan berdintasuna bermatzeko egin diren aldaketak aztertu ditu Emakundek ikerketa baten bitartez, tartean Berrizko jaietan. Ikerketa hori egiteko, San Pedro eta San Isabel jaietan dantzaten den Dantzari Dantza hartu dute.

Urteetan, gizonak osaturiko dantzari taldeak irten du plaza-

ra Berrizen, baina, 2014an, herriko lagun talde batek ohitura aldatzeko beharrezana planteatu zion Berrizko Udalari. Partaidetza prozesu baten ondoren, 2019an emakume batek Berrizko Dantzari dantzan parte hartu zuen, lehenengoz.

Emakundek eginiko ikerketan, Berrizko Dantzari Dantzan emakumeen partaidetzan adostasuna lortzeko eginiko prozesu



Dantzari Dantza egiten, Berrizen. OIER ARAOLAZA - DANTZAN

Elorriok berdintasun arloan izan duen ibilbidea, berbagai

Bizkaiko Foru Aldundiak antolaturiko Berdintasunerako Lurralde Sarearen mahai-inguruan parte hartu du Idoia Buruaga Elorrioko Udaleko alkateak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Idoia Buruaga Elorrioko alkateak Bizkaiko Foru Aldundiak antolaturiko Berdintasunerako Lurralde Sarearen mahai-inguruan parte hartu zuen atzo, Euskalduna Jauregian. Udaletik azaldu dutenez, Elorrio berdintasunerako politika publikoak sustatzeko udalerrirreferentzia delako gonbidatu dute Buruaga. Alkateak mahai-

inguru horretan parte hartzearen garrantzia azpimarratu du: "Aukera paregabea da udal bakoitzak egin dituen berdintasun-politikak eta mekanismoak bateratzeko, sarea indartzeko eta esperientziak elkarri gehitzeko. Baita berdintasun-politika errealek eta eraginkorrak eskaintzeko ere".

Elorriok sail propioa, genero-ikuspegiko jarduketara-plana eta

postu finkoa duen berdintasunerako teknikaria dituen Bizkaiko herririk txikiena da. "Hori guzti hori emakume taldeen eta talde feministen eskaera historikoaren eta Elorrioko Udalak berdintasun politiken alde egin duen benetako apustuaren ondorioa da", azaldu du Alazne Mendizabal berdintasun zinegotziak.



Idoia Buruaga ezkerrean.



Elorrixoko Katuak elkartekoak arduratzen dira abandonaturiko animaliak artatzeaz.

Abandonaturiko animaliak artatzeko protokolo bat egiteko eskatu diote Elorrioko Udalari

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken asteotako gertakariak haserrea piztu dute Elorrixoko Katuak elkarteko kideen artean. "Orain pare bat aste hamabi txakurkume poltsa batean sartuta agertu ziren, eta poltsa zabaldu eta zer zegoen ikusi beharrean, udaltzainek elkarteko kide bati eraman zioten poltsa, hark zabaldu zezan", adierazi dute elkartekoek. Behin poltsa zabaldua, txakurrak hartu eta txakurtegira eraman zituzten udaltzainek.

"Horrez gainera, zaurituriko edo hilzorian dauden katuak ere aurkitu ditugu sarritan kalean, eta geuk artatu behar izaten ditugu", jarraitu dute.

Beraz, horrelako kasuetarako, abandonaturiko animaliak hartzeko protokolo bat egiteko eskatu diote Elorrixoko Katuak elkarteko kideek Elorrioko Udalari. "Lotsagarria da udalak kasu hauetarako protokolo bat ez izatea. Beraz, lehenbailehen egiteko eskatzen diegu", adierazi dute.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Nekazaritza eta artisautza azoka, Haatik dantza konpainiaren ikuskizuna eta Puro Relajoren kontzertua gozagai Mallabian

Domekako azokan, Mallabiko eta inguruko hamabi bat ekoizle batuko dira pilotalekuan goizetik eguerdira.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Udalaren eta hainbat elkarteren artean osaturiko egitarauari esker, ekimenez beteriko ekaina hasi dute Mallabian. Esaterako, domeka honetan nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute pilotalekuan, herriko eta inguruko hamabi bat ekoizlegaz. 10:00etatik eguerdira arte egongo da zabalik, eta edukiera zainduko dute. Postu batean, konfinamendu sasoian eginko eskulanak erakutsiko dituzte herritarrek.

Azoka ez da izango eguneko osagai bakarra. 12:30ean, Haatik dantza konpainiak *Errimak bi oinetan* ikuskizuna eskainiko du. Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna. Sustrai Colina, Xalbador, Uxue Alberdi eta bertsolari gehiagoren doinupean egingo dute dantza bost dantzarik.

Eguna Puro Relajo taldearen kontzertuagaz amaituko dute. Musika talde nafarrak doinu mexikarrak eroango ditu Mallabira. Zuzen-

nekoa parkeko anfiteatroan izango da, 18:30ean. Eguraldi txarra egiten badu, frontoian izango da. Edukiera 150 lagunera mugatuko dute eta 18:00etan zabalduko dituzte ateak.

Zapatuko egitaraua

Zapatu honetan ere badago zezagaz gozatu. Irteera ornitologiko bat antolatu dute, Mallabiko faunaren aberastasuna deskubritzeko. Arlo horretan adituak diren Juankar Andresek eta Fernando Garitagoitiak gidatuko dute ibilaldia. 09:30ean ipini dute ordua, Mallabiko plazan. Besteak beste, San Pedro, Mardua, Urizar eta Arandoñotik ibiliko dira. Parte hartzaileei prismatikoak eramatea gomendatzen diete. Ez dutenei irteeran emango dizkiete.

Zapatuan beste ekimen bat ere egongo da. Zuhaitz Gurrutxaga telebista aurkezle eta futbolari ohiak bere futbol ibilbidetako bizipenetatik abiatutako *Futbolistok* izeneko umore bakarriketa eskainiko du, 18:00etan, Mallabiko elizan. 100 pertsonara mugatuko da ekimena.



Mallabian eginiko azoka bateko irudia.

Haatik konpainiaren ikuskizunak bertso ariketa dantzara eramatea da emanaldiaren berezitasuna

Ipuin kontalaria

Hurrengo asteburua heldu aurretik, astean zehar ere ekimen gehiago dago. Datorren asteko eguean, 19:00etan, helduentzako *Otsandreak korrika* ipuin kontaketa saioa eskainiko dute Kontzejuzaurrean. Clarissa Pinkola Estés-en

Mujeres que corren con los lobos liburutik harturiko zenbait ipuin eta istorioren irakurketa izango da. Kontaketa honetan, kultura arteko mito aberatsak, ipuinak eta istorioak agertzen dira, emakumeek euren indarra eta osasuna berreskuratzen dituzten.



Arbizolea industrialde ingurutik doan ibai ertzean eginiko lanen irudia.

URA agentziak Izurtzako ibaiertz bat eraberritu du

Eginiko lanek 17.000 euroko aurrekontua izan dute

IZURTZA • J.D.

URA- Uraren Euskal Agentziak Mañaria ibaiaren ertzeko zati bat, Ibaizabalen adarra, zaharberitu du Izurtzan, Arbizolea industrialdearen parean, 2019an izan zen ibaiertzaren lerradura bat zabaltzea saihesteko. Lerradurak ibaiertza hondatuta utzi zuen, lurra eta landaredia galduta, eta higadurak ubidearen parean diren udal-azpiegiturei eragiteko arriskua zegoen, URAk ohar batean azaldu duenez. Ho-

rrela, jausitako bloke askatuak kendu ondoren, ibaiertzeko lurra sendotzen ibili dira. Horretarako, harkaitz-ohantzean euskarriak sortu, enborrak gurutzatu eta espezie autoktonoak landatu dituzte.

Jarduketak 17.000 euroko aurrekontua izan du eta Izurtzako Udalak eta URAk jabari publiko hidraulikoaren ibilgu eta ertzetan ibai-mantentze lanak elkarregaz egiteko lankidetzeta-protokoloaren esparruan gauzatu da.

Herri batzarra Otxandion, aurrera begirako erronken inguruan

Herritarrekin eginiko batzarretatik eta komertzioetan eginiko inkestetatik ateratako ondorioak plazaratuko dituzte

OTXANDIO • J.D.

Hurrengo hamarkadako Otxandion norabidea herritarrekin modu kolaboratiboan marraztu gura du udalak. 20 herritarregaz elkarriketa sakonak egin dituzte, 16 eragileguz batzartu dira eta 21 komertzioetan inkestak egin dituzte, udalak sare sozialetan informatu

duenez. Azterketako ondoriok zapatu honetarako deitu duten herri batzarrean plazaratuko dituzte. Mainondoko gimnasioan izango da, 10:30ean. "Elkarrizketek emandakoa konpartitu eta hurrengo 10 urteetarako erronkak herritarrekin marrazten hasi gura dugu", azaldu dute.



Herriko komertzioekin eta herritarrekin batu dira informazioa batzeko.

Mañariko udalekuan 25 bat umek parte hartuko dute ekainaren 21etik aurrera

MAÑARIA • J.D.

Andra Mari Guraso Elkarteak eta Mañariko Udalak udalekuak antolatuko dituzte ekainaren 21etik uztailaren 16rako. Ekimenak oso harrera ona izan du eta 4tik 13 urtera arteko 25 bat umek parte hartuko dute. Gehienak mañariarrak dira eta Izurtzakoak, Durangokoak eta Iurretakoak ere badaude. Udalekuak Zientzikasi elkarteak kudeatuko ditu. Ekintzen artean,

Ekintzen artean, askotariko jolasak egingo dituzte eta astean behin egunpasa joango dira

askotariko jolasak egingo dituzte herri inguruan, eta astean behin egunpasa joango dira. Guraso elkarteak kideak gustura daude ekimenaren harreragaz, umek herrian bertan eta herrikoekin gozatzeko aukera izango dutelako, kanpora joan barik.

BERRIA

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatartza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

"Herrietan kirol ekosistema bat sortzea da mugikorretarako Wellk aplikazioaren helburua"

Euken Ercilla (Elorrio, 1998), Aritz Guinea (Galdakao, 1998) eta Joseba Martin (Aretxabaleta, 1998) Wellk izeneko aplikazioa garatzen dabilta. Kirola egiteko modua eraldatu gura dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ercilla eta Guinea Durangoko Ibaizabal ikastolako ikasle ohiak dira. Lehenengoa ingeniari industrialak da. Bigarrena ingeniari biomedikua. Proiektura batu den hirugarren kidea, Joseba Martin, Telekomunikazio ingeniaria da. Hiru adar horiek osatzen dute Wellk proiektua. Donostian dabilta aplikazioa garatzen.

Zelan deskribatuko zenukete Wellk?

Aritz Guinea: Wellk kirol jarduera areagotzen eta bizimodu osasuntsu bat eramaten laguntzen duen soluzio digital bat da, mugikorretarako aplikazio bat. Kirola egiteko erreminta guztiak jasotzen ditu eta kirol instalazioen tresnak hobetzen laguntzen du. Adibidez, kirol instalazioetan libre dagoen makina kopurua islatu dezake. Berdin igerilekuan zenbat jende dagoen. Bestetik, sare sozial bat eskaintzen du, kirolaren bitartez jendea hartu-emanetan ipintzeko. Azkenik, *market place* delakoa

dago, hau da, tokiko kontsumoari loturiko atala. Zure inguruko fisioterapeutak, dietistak edo entrenatzaile pertsonalak zeintzuk diren ikusi ahalko da bertan. Herrietan kirol ekosistema bat sortzea da aplikazioaren helburua.

Euken Ercilla: Aplikazioan zure kirol jarduerak erregistratzen joan

"Teknologia alor askotan garatu da, baina iruditzen zait kirolak salto bat eman behar duela hor"

zaitezke. Helbururen bat baduzu, demagun pisua jaitea edo helmuga bat markatzea, aplikazioak horretan lagunduko dizu. Herrian zein kirol egin dezakezun markatu diezazuke. Kirola egiteko kideren batez hiru-emanetan ipintzeko ere balio du.

Zein fasetan dago aplikazioa?

A.G.: Oraindik ez dago sareratuta.
E.E.: Ikerketak egiten jarraitu

gura dugu. Prototipoa ahalik eta erabilgarriena izan dadin gura dugu. Hurrengoko faseetan ipiniko dugu martxan, modu kontrolatu batean.

Kaleratze datarik baduzue buruan?

A.G.: Irailean Ibaizabal ikastolan egongo da erabilgarri.

Izan ere, Ibaizabal ikastolako Kirol Errotagaz lankidetzat martxan duzue.

E.E.: Bai, oraingoz hasierako fasean gaude. Egoera zein den ikeritzen gabilta. Ibaizabalgo komunitatean zein kirol egiten den, zenbat kirol egiten den, zeintzuk diren erabiltzaileak... ikertzen gabilta.

Kirola gailu digitalekin egiteko modua errotu egingo da?

A.G.: Nire ustez, bai. Teknologia alor askotan garatu da, baina iruditzen zait kirolak salto bat eman behar duela hor. Kirola digitalizazioa eta aire zabaleko inguruetara bideratzen joango dela uste dugu. Horregaitik diogu kirol ekosistema sortu gura dugula.



Euken Ercilla, Aritz Guinea eta Joseba Martin.

**LANBIDE
HEZIKETAKO
ESKAINTZA
2021-22**

**ESKABIDEAK
AURKEZTEKO
MAIATZAREN 31 TIK
EKAINAREN 18 RA**

**MATRIKULA
UZTAILAK 19-20-21**



ArmeriaEskola^x

Isasi 36, Eibar · 943 20 32 44

eibar@armeriaeskola.eus

www.armeriaeskola.eus



GOI MAILAKO
ZIKLOAK
ERDI MAILAKO
ZIKLOAK



**DISEINUA
FABRIKAZIO
MEKANIKOAN**



**PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA
FM-an**



**TELEKOMUNIKAZIO
ETA INFORMATIKA
SISTEMAK**



**AUTOMATIZAZIOA
ETA ROBOTIKA
INDUSTRIALA***



**MEKATRONIKA
INDUSTRIALA**



**MANTENTZE-LAN
ELEKTRONIKOA**



MEKANIZAZIOA



**INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK ETA
AUTOMATIKOAK**

Urrutia zinegotziaren aitatasun baja ez ordezkatzek eztabaida piztu du udalbatzan

Naiara Bildosola zinegotziak beteko du Mikel Urrutiaren liberazioa hura bajaran dagoen artean

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Mikel Urrutia Abadiñoeko EH Bilduko zinegotziak aitatasun baimena duen epealdian, bozeramaile lez dagokion liberazio erdiari uko egin dio. Naiara Bildosola zinegotziak hartuko du ardura hori Abadiñoeko Udalean. Erabaki honek eztabaida sortu du udalean. Izan ere, dedikazioa duten ordezkariak ez dute ordezkatuak izateko eskubiderik. "Lanera ez joatea eta botoa

eskuordetu ahal izatea ez dira nahikoa", kritikatu dute Abadiñoeko EH Bildutik. Gaineratu dutenez, "udal gobernuak III. Berdintasun Planaren 3.1 puntua urratu du. Puntu honetan zehazten da Abadiñoeko Udalak zaintza erdigunean ipiniko duen udalerrri erantzukidea sustatuko duela". Gauzak horrela, Urrutiak azaldu duenez, baja eskatu du Gizarte Segurantzaren, Hezkuntza eta Euskara eta Gizarte

Ongizatea batzordeetan egon den Bildosola zinegotziak haren ordezkapena egin ahal izateko.

Mikel Garaizabal alkateak, ostera, Urrutiaren eskubideak errespetatu egin direla azpimarratu du. "Legez dagozkion eskubide guztiak aintzat hartu dira, beste udaletan egiten den legez. Berdintasun Planak ez du zerikusirik horretan. Ez da udaleko langile bat, liberatu bat da", gaineratu du alkateak.



Zaldibarko III. Berdintasun Plana onartu dute, aho batez

Aurreikusiriko ekintzen artean daude herriko elkarteekin "zaintza-sare solidarioak bultzatzea" eta emakumeen "partaidetza sozial eta politikoa" sustatzea

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Aho batez eta datozen lau urteetan garatuko dituzten ekintza sorta batez. Halantxik onartu dute Zaldibarko Berdintasun plan berria. Udalak orain arteko lan ildoari eutsiko dio. Genero ikuspegia bere eskumenekoak diren "eremu guztietan" txertatzen jarraituko du, eta arreta ipiniko du askotari-

ko zapalkuntzak barnebiltzen dituen "intersektionalitatean", edo "emakumeen ahalduntzean". Plan berria herriko eragileen parte hartzeagaz landu dela adierazi du udalak. Aurreikusiriko ekintzen artean daude herriko elkarteekin "zaintza sare solidarioak bultzatzea" eta "emakumeen partaidetza sozial eta politikoa" sustatzea.



EH Bilduren prentsaurrekoa Abadiñoeko pleno aretoan.

Iurreta heziketa zentroak saria lortu du Euskelec auto elektrikoaren txapelketan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurreta Lanbide Heziketa zentroa Euskal Autonomia Erkidegoko garailea izan da IV. Euskelec auto elektrikoaren txapelketan. Bilboko Itsas Museoa egin zen txapelketa eta Estatuko 19 ikastetxek parte hartu zuten. Iker Mujika "Akerra" pilotuak, ielectric taldeko ikasleak, gidatu zuen autoa. "Ilusioa eta urduritasuna nabariak ziren boxetan", azaldu dute ikastetxeko ordezkariak. Ikastetxeetako kideetatik aparte hainbat bisitari batu ziren, Angelman eta Geubeko neska-mutilak tartean.



Euskelec auto elektrikoaren txapelketa Bilboko Itsas Museoa egin zen.

Iurretak 1,3 milioi ipiniko ditu II. Irisgarritasun Planerako

Dokumentu berriak 2005etik indarrean egon den plana "berrikustea, aldatzea eta eguneratzea" du helburu

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak II. Irisgarritasun Plana onartu du, "herrian ingurune atsegin eta irisgarria sortzeko". Dokumentu berriak 2005etik indarrean egon dena "berrikustea, aldatzea eta eguneratzea" du helburu. 1.319.000 euro ipiniko dituzte datozen urteetan garatuko den plan horretarako.

Planean, aurrera begira garatu beharreko jarduerak antolatu eta planifikatuko dira, udal ardura-

dunek azaldu dutenez. Apurka, ingurune irisgarriagoa lortzeko. Horretarako, diagnostiko bat egingo da eta jardura proposamenen eta lehen tasunen zerrenda bat osatuko da. Bide eta espazio publikoetako dagokienez, 554.000 euroko aurrekontua duten jarduketak jasotzen dira, hiri-altzarietan, oinezkoentzako ibilbideetan eta espaloietan eragingo dutenak. Udal-erakineko dagokienez, 765.000 euroko inbertsioa aurreikusi du planak.

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto komunikabideak

Zure ingelesa hobetu nahi duzu?

LET'S TALK

Academia de inglés

Begiratu zer iritzi duen jendeak gutaz Googlen

Elorrioko Udako Igerilekuak

Ekainaren 14tik irailaren 19ra arte

Informazio guztia: www.elorrio.eus

Elkartasun Biltegiak ekainaren amaieran ekingo dio elikagaiak banatzeari



Asteburuetan supermerkatuen aurrealdean egoten dira dohaintzak jasotzen.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Data zehatzik ez dago, baina Elkartasun Biltegiako kideek ekainaren amaieran hasi gura dute elikagaiak banatzen beharrezkoak diren herri-tarren artean. Elkartasun Biltegia Durangaldeko Kontseilu Sozialistak sortu du, eta, bertako kideen esanetan, biltegiak "tresna bat" izan gura du "ahalik eta langile antolakuntzarik zabalena" osatzeko, eta "zapalkuntzarik bako gizarte" baterako bidean eragiteko.

Elkartasun Biltegiaren ezaguerri nagusia da bere funtzionamendua "klase elkartasunean" oinarrituta egongo dela. Hau da, dinamikako kideek azaldu dute "elkartasun biltegiako lanak aurrera eramaterako orduan ez dela bereizketarik egingo boluntarioen eta hartzaileen artean". Hartzaile denak laguntza sarean ere parte har-

tuko du. "Asistentzialismora" eta norabide bakarreko elkartasunera mugatu barik, norabide guztietan landu gura dute elkartasuna. "Langileok gure artean antolatuta elkarri laguntzea" da kideen asmoa.

Kopuruak handitzen

Momentu honetan elikagai dohaintzak jasotzen dabilta. Asteburu honetan, adibidez, Iurretako Lidl parean egongo dira. Orain arte biltegiaturiko elikagai kopuruari dagokionez, datu pare bat eman dituzte: momentu honetan 600 kilo pasta eta arroz dituzte biltegiaturiko. Horrez gainera, 400 atun lata dituzte. "Lau hilabeteen hogeitahiru herriar elikatzeko" beste janari dutela jakinarazi dute.

Dohaintza egin gura duenak 747422815 telefono zenbakira jo dezake bizum sistema erabilita.

Politikan

Mariam Bilbatua
EH - Bildu



Kulturaren sorkuntza eta transmisioa

Azkeneko bi astetan Kulturgintzari lotutako hiru ekimenen berri eman nahi dut gaurko zutabearen.

Maiatzeko Osoko Bilkurak, Udal Gobernuak proposatuta, 95.000 euroko 'Durango Sor(tzailen)leku' beka deialdia egitea onartu zuen. Deialdi horren bidez kultur arlo desberdinetako lanen sorkuntza bultzatu nahi da, eta, aldi berean, kulturgintzan aritzen diren pertsonen COVID-19ak sortutako kalteak gainditzen lagundu.

Maiatzaren 28an, urteetan Euskal Jaietan parte hartu duten 30 eragile ingururi aitortza eginez hasi genuen aurtengo Euskal Jaieen programazioa, euskal kulturaren adierazpen eta estilo mota desberdinak biltzen dituen ekimen anitzeko programaz gozatzeko aukera ematen diguna.

Ekainaren 1ean, berriz, bukaera eman diogu Udal Gobernuak Emun aholkularitzaren laguntzaz martxan jarri zuen "Plateruenaren diagnostikoa parte hartze prozesuari".

Prozesuan antolatutako bost tailerretan kulturgintzaz aritzen diren eragileen ahotsa jasotzeko aukera izan dugu. Zutabe honek dituen mugek ezinezkoa egiten didate prozesuan jasotako ekarpen guztiak aipatzea. Horregatik, bat azpimarratu nahiko nuke: Durangoko Kulturgintzaren gabeziak identifikatu eta estrategia eta plan orokor bat egiteko beharra.

Plan orokor honek behar, baliabide eta kudeaketa egokiak identifikatzeaz gain, Kulturgintzaren aritzen direnen arteko harremana eta kohesioa areagotu eta Plateruenaren biziberritze planaren zutabeak indartuko lituzke. Aipatutako ekimenak EHBilduk euskal kulturgintzaren alde duen konpromisoaren isla txiki bat dira, nire ustetan.

Durangaldea asteen

Gaztetxearen 20. urteurrena ospatuko dute barikuan eta zapatuan Otxandion

Otxandio | Gaur arratsaldeko 18:00etan, txupinazoa jaurtita emango diote hasiera Otxandio Gaztetxearen 20. urteurren jaiari. 'Inausiz inddertu' lelopean, egitarau zabala antolatu dute: umeentzako tailerrak, gaztetxearen belaunaldi arteko elkarrizketak, bazkaria, Wood Strings taldearen kontzertua eta elektrotxaranga estatikoa, besteak beste.

Ekainaren 30era bitartean martxan da 'Elorrixon Dendarik Denda' kanpaina

Elorrio | Elorrioko merkataritza bultzatzeko, martxan da 'Elorrixon Dendarik Denda' kanpaina. Ekainaren 30era bitartean, 18 urtetik gorako herritarrek kanpainari atxikitako 32 saltokietariko batean trukatu ahal izango dituzte euren erosketabonuak.

Zornotzan 802 delitu erregistratu ziren iaz, 2019an baino %13 gutxiago

Zornotza | Ertzaintzak eta Zornotzako udaltzaingoak elkar-lanean eginiko azterketa baten arabera, udalerriko delitu tasak behera egin zuen iaz. 2019an 922 delitu erregistratu ziren, eta 802 iaz, %13 gutxiago. Koronabirusak, antza, izan du zerikusirik hor. Konfinamendu denboraldian ez zen etxebizitza lapurretarik erregistratu, eta salatutako erasoak zein indarkeriazko lapurretak ez ziren pandemia aurreko balioetara ailegatu.



Durangoko Otamotzena parkeko ur-txorrotak gaur ipiniko dituzte martxan

Durango | Parkea apirilean inauguratu zuten, eta bariku honetan instalazio berri bat ipiniko dute martxan. Durangoko Udalak umeentzako ur-txorrotak zabalduko ditu. Udal gobernu taldeak gogora ekarri duenez, parkearen diseinua "auzoko bizilagunekin batera" adostu zuen, 2019an eginiko bileren bitartez.

"Durangoko auzoei alternatiba bat eman behar zaiela" diote udal agintariek. Ez dituzte aisialdi gune guztiak erdigunean batu gura. "Hainbat lekutan zabaltzea behar ditugu guneak, eta horren erakusgarri da Otamotzena parkeak izan duen arrakasta", azaldu dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

Eramateko edalontzi berrerabilgarrien zerbitzua



Ikusi gure mapa



Antolatzailea



Laguntzaileak



@irrisarri

MAKALLAU
saltsan®

saltsan®
KONFIANTZAN


MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

BURUARI KLIK!



LEKUZ KANPO


Beheko irudian lekuz kanpo dauden zazpi gauza daude.
Denak topatzeko gai zara?



SEKUENTZIARI JARRAITU


Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.

3 ↘ 3 ↓ 3 ↙ 3 ← 2 ↘ 1 ↓ 1 ↖ 1 ← 2 ↘ 1 ↓
1 ↖ 1 ← 1 ↘ 1 ↓ 1 ↙ 1 ↑ 1 ↖ 1 ↙ 5 ← 1 ↖
1 ↙ 1 ↓ 1 ↖ 1 ↑ 1 ↗ 1 ← 1 ↙ 1 ↑ 2 ↗ 1 ←
1 ↙ 1 ↑ 2 ↗ 3 ← 3 ↖ 3 ↑ 3 ↗ 4 ↓ 1 ↘ 3 ↑
2 ↘ 4 ↓ 1 ↗ 1 ↑ 1 ↗ 1 → 1 ↘ 1 → 1 ↗ 1 →
1 ↘ 1 ↓ 1 ↘ 4 ↑ 2 ↗ 3 ↓ 1 ↗ 4 ↑





ZEIN DA EGOKIA?

Beheko zati guztietatik bi ez dira egokiak. Zeintzuk bai?



LETRA ZOPA


Topatu itsasoan egon daitezkeen hamar gauza hauek letra zopa honetan.



E	P	A	Z	D	A	L	K	T	G	L	X	E	I
G	U	I	Q	Q	Z	G	Y	F	K	Q	T	K	Z
K	B	R	Q	A	S	I	R	E	N	A	B	K	U
L	O	K	P	O	R	K	X	O	D	M	O	X	R
S	F	U	L	E	S	R	D	P	H	D	L	W	D
V	F	P	D	B	K	H	A	B	R	N	A	K	E
Y	D	C	Y	Q	A	A	D	I	C	D	G	N	A
Z	X	Y	J	B	J	L	R	O	N	M	A	F	P
I	Z	A	R	R	A	C	E	I	R	A	R	T	O
S	M	P	A	R	Y	N	Q	A	A	D	R	P	H
I	T	S	A	S	O	N	T	Z	I	A	O	U	B
E	A	L	T	Z	O	R	R	A	Q	C	A	K	E
Q	E	N	Q	F	T	B	W	K	A	I	L	Z	A
U	S	Q	C	S	D	E	V	U	Q	S	K	O	H


TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu arrain hauek txikitik handira beheko irudian marraztuta dauden arabera.















TOPATU ITZAZU

Alboko irudian
bederatzi objektu
hauek topatzeko
gai zara?




PUZZLEA

Moztu artaziekin
behean dauden
pieza guztiak eta
osatu puzzlea
alboko laukizuzen
honetan.




Hemen eta online



Sartu **anboto.org**-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira **anboto.org**-en



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



6. atala 'Kopa'

Zelako *marroia* pasa
diodan Beñati.

'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU EZ
DA
NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Instalatu orain!



Artisauen azoka

AZOKA DURANGO :: Ekainaren 4tik 6ra

Landako Guneak artisautzaz gozatzeko aukera eskainiko du

Durangoko Euskal Jaien barruan Artisau eta Sortzaileen Azoka egongo da asteburuan, Landako Gunean. Eixu artisau elkarteak antolatu du eta 21 artisau eta sortzailearen lanak ikusi eta eros- teko aukera eskainiko du. Horrez gainera, Olga Uribe ehule durangarraren lanekin osaturiko

erakusketa batuko du Landako Guneak. Bihar eta etzi, zurezko ehungailuekin eginiko lana zuzenean ikusteko aukera ere egongo da. Gaur, 16:00etatik 20:30era egongo da zabalik azoka. Eta zapatuan eta domekan goizean eta arratsaldean egongo da joateko aukera.

Ekainaren 4an

IURRETA zirkua
'Txoriak txori' (Sarini Zirkoa), 17:00etan, Askondoko aterpean.

OTXANDIO urteurrena
Gaztetxearen XX. urteurrena hasteko txupinazoa, 18:00etan.
Ekitaldi teateroa, 18:30ean.
Barra zabalik + xake, ping-pong eta futbolin partidak, 19:00etan.
Faroltxuen hegaldatzie, 22:00etan.

Ekainaren 5ean

IURRETA musika
Idoia Asurmendi, 19:00etan, Aita San Migel plazan.

OTXANDIO urteurrena
Otxandioko Gaztetxearen XX. urteurrena. Umeentzako tailerrak, 11:30ean.
Gaztetxeko belaunaldi arteko elkarrizketa, 12:30ean.
Bazkaria eta bazkalondoa jolasekin, 14:30ean (sarrerak, tabernan).
Kalejira buruhandi eta erraldoiekin, 17:00etan. Kontzertua: Wood Strings, 18:30ean.
Elektrotzaranga estatikoa: Puma Zeberio, 20:00etan.

OTXANDIO bertsoak
Durungaldea uztabarritzen bertso zirkuitua: Igor Galarza, Eneko Abasolo 'Abarkas', Ander Sarriguarte eta Maialen Lujanbio, 18:00etan, Andikona plazan. Gai-jartzailea Otxandioko Bertso Eskola. Sarrerak 17:00etatik aurrera eskuragarri.

ZORNOTZA musika
'Arineketa (Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaran), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 8an

DURANGO dokumentala
'Izadi. Espetxean jaiotako atzera kontaketa' dokumentala, 19:00etan, Arrupe aretoan. Durangoko Sarek antolatuta. Lekua mugatua denez izena eman behar da: 600 034 203 telefono zenbakira deitu daiteke horretarako.

Ekainaren 10ean

ZORNOTZA zinema
Zine klasikoa: 'El chico', 19:30ean, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 12an

DURANGO dantza
Dantza saioa: Oinatz dantza taldea (Oñati) + Duguna dantza taldea (Iruña) + Iurretako Dantza Taldea, 18:00etan, Aita San Migel plazan.

DURANGO bakarrizketa
'FutbolisTOK' (Zuhaitz Gurrutxaga), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Sarrerak Arte eta Historia Museon.

DURANGO musika
Organo, saxofoi, alboka, perkusio eta ahots kontzertua, Ana Belen Garcia, Mixel Ducao eta Thierry Biscary-ren eskutik, 19:30ean, Andra Mariko basilizan. Arandoño kultur elkarteak antolatuta.

ELORRIO antzerkia
'Karrikan' (Karrikan antzerki taldea), 19:00etan, Arriola antzokian.

Ekainean eta uztailan zehar

DURANGO erakusketa
'Regoyos. Durangoko begirada inpresionista', Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: **Abadiño**
ERROTA KULTUR ETXEA

• **El olvido que seremos**
zapatua 5: 19:00
• **¡Upssss! ¿Y ahora dónde está Noe?**
domeka 6: 17:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA

• **Ilargi guztiak**
zapatua 5: 19:00
domeka 6: 19:00
astelehena 7: 19:00 (gaztelera)

:: **Zornotza**
ARETOA

• **Ilargi guztiak**
barikua 4: 19:30
domeka 6: 19:30
astelehena 7: 19:30
• **Ahí viene Cascarrabias**
domeka 6: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA

• **Dios mío ¡los niños han vuelto!**
barikua 4: 19:30/22:00
zapatua 5: 19:30/22:00
domeka 6: 18:00/20:15
astelehena 7: 18:00/20:15
martitzena 8: 19:30
eguzatena 9: 19:30

• **The Good Traitor**
barikua 4: 19:30/22:00
zapatua 5: 19:30/22:00
domeka 6: 18:00/20:15
astelehena 7: 18:00/20:15
martitzena 8: 19:30
eguzatena 9: 19:30

• **Shorta. el peso de la ley**
barikua 4: 19:30/22:00
zapatua 5: 19:30/22:00
domeka 6: 18:00/20:15
astelehena 7: 18:00/20:15
martitzena 8: 19:30
eguzatena 9: 19:30

• **La abeja maya. El orbe dorado**
zapatua 5: 17:30
domeka 6: 12:00
• **Asterix: Edabe Magikoaren Sekretua**
domeka 6: 12:00



“Agenda kontzertuz beteta daukagu eta hori ez da ohikoena. Zortedun sentitzen naiz”

Idoia Asurmendik kontzertua eskainiko du Udaberri Kulturala zikloaren barruan; zapatuan izango da, 19:00etan, lurretako plazan



Kutxa kultur ekimenaren bekagaz Tabakalera urtebeteko egoitza eduki duzu, baita laguntza ekonomikoa ere. Zenbaterainoko dira lagungarriak horrelakoak?

Oso lagungarria izan da, batez ere bultzada bat izan delako proiektu honi ekiteko. Proiektu asko izaten ditugu buruan, baina lehenengo pauso hori ematea oso zaila izaten da. Babesa eskertzekoa da, beraz. Niretzat aitzakia bat izan da proiektuagaz hasteko, eta oso eskertuta nago. Gainera, ikusten da horrelako iniziatiba gehiago egiten hasi

Proiektu asko izan ohi ditugu buruan, baina lehenengo pauso hori ematea oso zaila izaten da, oso eskertuta nago

direla, eta hori oso pozgarria da, artista hasiberriei laguntzeko baliagarria da eta. Beka horiek laguntza materiala eskaintzen dute; adibidez, nik Tabakalera lokal batean entseatu ahal izan dut urtebetez, eta diru laguntza bat ere jaso dut. Baina laguntza ez materiala da gehien baloratzen dudana, bultzada hori jaso izana, jakitea babes bat izan dudala nire proiektua aurrera eramateko.

Zer eskainiko duzue lurretako kontzertuan?

Kontzertua formatu akustikoan izango da, Joanes Ederragaz batera; berak baxua eta kontrabaxua jotzen ditu. Diskoa goitik behera joko dugu, baita bertsio batzuk ere. Horrela hasi nintzen ni, bertsioak jotzen, eta gustatzen zait horiek jotzen jarraitzea. Ordubeste inguruko kontzertua izango da; ordubeste, musika entzun, lasai egon, eta disfrutatzen.

Ekainaren 19an Bartzelonara goaz; talde lez kanpora goazen lehenengo aldia izango da. Horren ostean, uztailean, kontzertu dezente ditugu Euskal Herrian.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Idoia Asurmendik (Aramaio, Araba, 2000) 'Ilun eta abar' diskoa kaleratu du oraintsu. Eta zapatuan lurretako plazan aletuko du, Joanes Ederra baxu-jotzaileagaz batera, lurretako kultur egitarauaren barruan. Kulturarentzat sasoirik onena ez dela-eta, musikari aramaioarra zorteko sentitzen da, izan ere, "agenda kontzertuz beteta" dute.

Zelako harrera izaten ari da diskoa?

Urtebeteko prozesu luzea izan da eta kaleratzeko gogoia nuen, jendeak zelan jasotzen zuen ikusteko. Hilabete baino ez da igaro, eta eskaini ditugun kontzertuetan bete egin ditugu antzokiak. Hori ez da erraza garai hauetan.

Kontzertuak ere ez dira lehenengo modukoak izango.

Honi alde positiboa ateratzen ahalegintzen naiz. Nire musika bada jesarrita entzutekoa. Alde horretatik, ez nau askorik eragin, baina maskararen kontuak bai. Oso hotza da horrela kontzertuak ematea, jendearen begiak baino ezin dituzu ikusi eta. Horrez gainera, oso arrotza egiten zait aulkiak hutsik ikustea. Baina, esan dudana moduan, ezin gara kexatu, agenda kontzertuz beteta dugu, eta hori horrela izatea, are gehiago gaur egun, ez da ohikoa. Zortedun sentitzen naiz, beraz.

Elkarren artean nahikoa ezberdinak diren zortzi abestik osatzen dute

'Ilun eta abar'. Erabakia izan da ala horrela irten zaizkizu?

Horixe da, hain zuzen ere, disko honen ezaugarrietariko bat, abestiak ezberdinak direla euren artean. Ez da erabakitako zerbait izan, horrela irten zaizkit. Nik era askotako musika entzun dut txikitatik, eta influentzia horiek ikusi daitezke diskoan. Sortzerakoan ez diot mugarik ipintzen neure buruari, nire musikari. Ez zait gustatzen musika estiloei etiketak ipintzea, horrek mugak sortu ditzakeelako. Gainera, uste dut niretzat aberasgarria izan daitekeela, azken finean, guztia delako musika, eta nik sentsazio desberdinak sortu gura ditut musikaren bitartez.

Pianoa eta gitarra jotzen dituzue, abesteaz gainera. Konposatzerakoan, metodologiarik jarraitzen duzue, ala zelan aukeratzen duzue zein instrumentuagaz konposatu?

Ez daukat metodologia konkreturik, intuizioz egiten dut. Normalean, burura esaldi bat edo berba bat, edo akorde batzuk etortzen zaizkit, eta hortik tiratzen dut gero. Pianoagaz zein gitarragaz, biekin konpontzen naiz ondo, baina, egia esateko, gehiago naiz pianista; gitarragaz estuago ibili ohi naiz, baina instrumentu erraza da konposatzeko. Biekin nago eroso, eta ideia etortzen denean, nagoen instrumentuagaz moldatzen naiz.

ERDI MAILAKOAK

- ✓ BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (iturjintza, eguzki instalazioak, gasa)
- ✓ MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

GOI MAILAKOAK

- ✓ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- ✓ MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- ✓ FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ✓ ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- ✓ AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- ✓ EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

Lanbide Heziketa

94 616 90 02 info@leartik.eus www.leartik.eus



MARKINA-XEMEIN





EMAN IZENA



Haizetara kale musika jaialdia ekainean bueltatuko da Zornotzara

Hilaren 24, 25, 26 eta 27an egingo da aurtengo edizioa, osasun egoerara egokituta



MUSIKA • A.M.

Iaz formatu digitalean egin behar izan eta gero, aurten Zornotzako agertokietara bueltatuko dira fanfarreak, bandak eta kaleko musikariak. Hala ere, "modu alternatiboan" egin beharko dute aurtengo edizioa. Kontzertuak "barne formatuan" egingo dira, hau da, gune itxietan; Zelaia zentroan, Zornotza aretoan eta Amorebieta IV frontoian egingo dira zuzeneko emanaldiak. "Kaleko musikari onenaz modu lasai eta seguruan gozatu ahal izango dute bertaratutakoek", azaldu dute udal iturrietatik. Besteak beste, Satisfackshow, Radio Kaizman,

Botxo Boogies eta Balkan Paradise taldeek eskainiko dituzte zuzeneko emanaldiak.

Osasun larrialdi egoeraren ondorioz, Banden Nazioarteko lehiaketa ez da egingo aurten. Hala ere, publikoak talderik onena saritu ahalko du, *haizetara.eus* atarian.

Argazki erakusketa

Ekainaren 24tik uztailaren 11ra bitartean, *Haizetara gu gara!* erakusketa egongo da ikusgai herriko plazan. Alex eta Jesus De Pedro argazkilari zornotzarren irudiekin osatuta egongo da erakusketa.

Haizetara 2021

Ekainak 24

• Jazzaren atzera begira-koa, 19:00etan, Zelaia

Ekainak 25

• **Satisfackshow**, Zornotza aretoan, 16:30etan eta 20:00etan

• **Radio Kaizman**, Amorebieta IVn, 16:30etan eta 20:00etan

• **Botxo Boogies**, Zelaia, 19:00etan

Ekainak 26

• **Balkan Paradise**, Zornotza aretoan, 12:30etan eta 20:00etan

• **Artistas del Gremio**, Amorebieta IVn, 12:30etan eta 20:00etan

• **Sagi Quintet**, Zelaia, 19:00etan

Ekainak 27

• **Brass Corp**, Amorebieta IVn, 12:30etan eta 20:00etan

• **Wonder Brass**, Zornotza aretoan, 12:30etan eta 20:00etan

'Karrikan' Karrikaren itzulera obra Elorrion eskainiko dute

Ekainaren 12an izango da, 19:00etan; Topaklownen estreinatu zuten, Patricia Urrutiaren gidaritzapean

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Karrika antzerki taldeak aro berri bati ekin dio *Karrikan* antzezanagaz. 2018ko otsailean Jose Martin Urrutia 'Txotxe' Karrikako alma materra zendu zenetik, estreinatu duten lehenengo lana da *Karrikan*, hain zuzen ere. Obra honek fikziozko herri txiki batera darabata ikuslea. Bertan, zortzi lagun aurkeztuko dizkiote ikusleari. Zortzi lagun horietariko bakoitzak kutxa bat izango du buruan. "Baina, eta egokitu zaigun

kutxari egokitzerik ez badago?", galdetzen dute Karrikako taldekideek. Abiapuntu horregaz, antzezan ezberdin bat aurkeztuko dute. Obra honetan, Uxuri Gallastegi, Maite Lopez, Naiara Lopez, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Mikel Urbelarrea, Maialen Magunagoitia eta Eider Chavez dira antzezleak; Patricia Urrutia arduratu da *Karrikan* zuzentzeaz. Topaklown jaialdian estreinatu zuten obra. Emanaldi bi izan ziren eta biak bete ziren.



Antzezanaren estreinu argazki bat.

Gai librean

Ume izoztuak

Iragarkiak aldatu dizkirate udaberrian. Ea zenbat asteko haurdun nagoen jakiteko merkatuko makila fidagarrietatik, obuluak izozteko kliniketara. Ez didate eskaintzen tesia amaitzeko sei hilabeteko egonaldi bat, ezta lan egonkor bat, ezta 500 euro baino gutxiagoko alokairu bat... ez, hori ez.

Bi kanturen arteko publizitateak dakar galdera: ez dituzu zure obuluak izoztu nahi? Ze pertsona klase zara? Pentsatu birritan, badoaz eta aukerak komun zulotik behera. Atzera bueltarik gabekoa da hirugarren hamarkadako minutu bakoitza. Hileroko kopa bete guztiak dira orain ama izateko aukera galdu bat. Ama izateko ekarri baininduten mundura, zertarako bestela? Inoiz desiratu ez duzun fetu baten errua ere bota baitizu aurpegira iragarkiak (barka, iragarki segidak, iragarki ja-



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Ea, ze zakil kuadrillak antolatu du hau horrela? Atera zuen iragarkiak gure obarioetatik eta utz gaitzazue bakean

Publizitate algoritmoak identifikatu du pantaila atzeko erabiltzaileak umetoki bat daramala bere barnean

zarpenak: hau ez bada biolentzia azal diezadala norbaitek min hau).

Publizitate algoritmoak identifikatu du pantaila atzeko erabiltzaileak umetoki bat daramala bere barnean,

eta erabaki du erabili egin behar duela ezinbestean. Galdetu gabe ea hala nahi duen, edo ea orain saiari nahi duen, saiatzen ari den, denbora asko al daraman nahi eta ezinaren gatazkan, nahi gabeko abortutan amaitzen diren saiakeratan, osasun arazoren bat duen, ugalkortasun arazoren bat, erreserba obariko nahikoa, edo esperma lortzeko aukerarik ba ote duen eskura. Are, ama izateko modu bakarra balego bezala.

Bizi dugun eta zeharkatzen gaituen sistema honekin bateraezina den orainaldi biologikoa geroratzeko izoztu ezazu ume bat izateko posibilitatea zero azpitik 196 gradutan. 2.000-3.000 euro artean bitrifikatu obozitoak lehenbizi, eta urteroko 300 bat euroko mantenu kuota ordaindu gero etorkizuna programatzeko. Ea, ze zakil kuadrillak antolatu du hau horrela? Atera zuen iragarkiak gure obarioetatik eta utz gaitzazue bakean.

Urrezko Ligara igo ez izanak ez dio meriturik kentzen Zornotza Saskibaloit Taldearen lan bikainari

Zornotzako Udalak harrera egin dio Zornotza saskibaloit taldeari Urrezko Ligara igotzeko zorian egon izanaren balentria aintzatesteko

SASKIBALOA • J.D.

Zornotza saskibaloit klubeko arduradunak eta jokalariek harro egoteko moduan daude eginiko denboraldiagaz. Gainerako taldeek baino baliabide gutxiagaz, baina arlo horretako eskasia lanagaz eta ilusioagaz ordezkaturata, balentria handi bat egiteko puntu egon dira. Horrela ulertu dute Zornotzako Udaletik ere, eta eguaztenean harrera egin zieten udaletxean, euren balentria futboleko Bigarren Mailara igo den Amorebietak lortu-takoagaz parekatuta.

Iaz, gura baino gehiago sufritu zuen Zornotzak, baina eginiko akatsetatik ikasi eta ohi zuten bidetik bueltatu dira aurten berriro. Alde batetik, etxeke jokalarien aldeko apustua egin dute, sei bizkaitarrek. Horrek "talde elkartua" sortzerako orduan zirikusia izan duela uste du Mikel Garitaonandia entrenatzaileak. Errezeta hori errendimendu ona eskaini duten atzerriko fitzaketa batzuekin ondu dute, hala nola Jeremy Rodriguez dominikarra-



Udal arduradunak eta Zornotza Saskibaloit Klubeko kideak udaletxearen aurrean.

gaz eta Bryson Robinson estatu batuarragaz.

Play off-etan ez ziren ezeren faborito. Pronostikoen kontra, Menorca taldea kanporatu zuten lehenengo. Etxean lorturiko hamaika puntuko abantaila nahikoa izan zitzaizen, irletan zortzi puntu-

gaitik galdu zuten eta. Finalean, Bartzelona klubaren filialaren kontra parekatu zituen zozketak. "Gure jokamoldea zein den ikusita, egokitu ahal zitzaigun aurkaririk okerreza zen", onartu du Garitaonandiak. Eta usteak lehenengo partiduan bertan baieztatu ziren.

Zornotzarrek ondo eutsi zioten atsedendira arte (39-39), baina katalanak gehiago izan ziren hirugarren laurdenetik aurrera. Zornotza hamabi puntuko desabantailagaz joan zen Bartzelonara eta ezin izan zion bueltarik eman. Are gehiago, Bartzelona B nagusi izan

zen partidu osoan zehar (98-69). Zornotzarrak burumakur bueltatu ziren etxera, baina burua ondo goian izateko arrazoiak dituzte. Sekulakoa lortzekotan egon dira. Orain atsedean hartzeko unea da, eta datorren urtean beste aukera bat izango dute.

Durangaldeko taldeak nagusi izan dira Bizkaiko saskibaloit ligetan: Durangoko Anbotopeko, Zaldibarko Zaldia eta Zornotza

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Zornotza STko talde nagusiak ez du lortu Zilarrezko Ligatik Urrezko Ligara igotzea, baina klubean eduki dute zer ospatu. Bizkaiko maila bereziko taldeak liga irabazi zuen joan zen asteburuan, Getxo 75-60 menderatuta. Horren ondorioz, bigarren nazional mailara igo zuen.

Kategoria bat beherago, Bizkaiko Lehenengo Mailan, Durangaldeko talde bi izan dira

aurtengo onenak: Durangoko Anbotopeko eta Zaldibarko Zaldia. Hain zuzen ere, joan zen zapatuan elkarren kontra jokatutako partiduan erabaki zen ligako txapelketa. Anbotopeko nagusitu zen: 60-47. Hasieratik, gehiago izan ziren durangarrak. Lehenengo laurdenean 13 puntuko abantaila lortu zuten: 23-10. Bigarren zaldibartarrak apur bat hurreratu ziren (33-24), baina hirugarrenean

partidua erabakita geratu zen (57-35). Liga irabazi arren ez dute mailaz igotzeko eskubiderik lortu. Izan ere, pandemiak denboraldia hankaz gora ipini zuen hasieratik eta Bizkaiko Saskibaloit Federazioak aurten igoerarik eta jaitsierarik ez egotea erabaki zuen.

Azken bost-sei urteetan Anbotopeko saskibaloit taldeak hiru bider irabazi du Bizkaiko Lehenengo Mailako liga.



Anbotopeko saskibaloit taldeko jokalariek liga txapelketa ospatzen. LUIS ITURRIOZ.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1[#]



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahim Balde (Susas)

2[#]




ARROZ UREZ
Mikel Antza (Txalaparta)

3[#]



BIZIA MIN
Jon Ander Urkiaga (Luces de Gálbo)

4[#]



EDERRIKO
Karmelo Uriarte (Labayru)

5[#]



AITAREN ETXEA
Karmelo Jaio (Elkar)



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



Tabirakon denboraldi hasieran egin zuten aurkezpen ekitaldiko irudia.

Lagun talde bat prest dago Tabirako saskibaloia klubaren gidaritza hartzeko

Hauteskunde prozesuan hautagaitzarik aurkeztu ez zenean, alarma gorria piztu zen klubean

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Tabirako kluba osatzen duen familia handiak arduraz bizi izan ditu azken asteak. Zuzendaritza osatzeko lagun talde berri bat agertu ezean, 61 urteko historia duen kluba desagertzeko arriskuan zegoen. Azkenean, sukaldeko lanak bere fruituak eman ditu eta klubaren gidaritza hartuko duen 14 bat laguneko talde bat sortu dela konfirmatu du Ina Mendibe klubeko presidentek.

Gaur egungo zuzendaritzak erreleboa gura zuen eta hauteskundeetara deitu zuen, baina

ez zen hautagaitzarik aurkeztu. Orduan, gaiari irtenbidea aurkitzeko, beste bide batzuk jorratzen hasi ziren eta sukaldeko lanari ekin zioten. Klubeko jokalariek federatuek, euren gurasoek eta entrenatzaileek batzar bat egin zuten Landako kiroldegian. Egoera zein zen azaldu eta gaia eztabaidatu zuten. "Orduan, lagun talde batek interesa erakutsi zuen gehiago jakiteko eta gaia aztertzeko", gogoratu du Mendibek. Lehenengo pauso bat zen. Harrezkero, proiektua gorpuzten joan da apurka-apurka gaurko egoerara heldu arte: lagun

talde bat prest dago klubeko zuzendaritza hartzeko.

Ezohiko batzarra atzeratuta

Atzo Landako kiroldegian Tabirakoren ohiko eta ezohiko batzar bana egitekoak ziren eta hauxe zen batzarreko puntuatariko bat: kluba desagitea, likidatzea eta hori betearazteko prozedura onartzea. Baina lagun talde bat agertu denez, klubetik batzar bi horiek atzeratu egin dituzte. Hurrengo egunetan batzar horietara berriro deituko dutela aurreratu dute gai ordena berri batez.

Gonzalo Diazek urrezko sei domina Espainiako Txapelketan

Salbamenduko eta Sokorrismo Espainiako Master Txapelketak jokatu dituzte Durangon eta Gorkizen

IGERIKETA • J.D./M.Z.

Lehenengo, Tabira Igeriketa Taldeko kideak urrezko domina bi eskuratu zituen Durangoko probetan: manikiaren 100 metroko atoi proban aletekin, eta 100 metroko sokorrismo proban. Hurrengo egunean, Gorkizen, urrezko beste lau dominagaz borobildu zuen asteburua: salbamendu taulagaz eginiko lasterketan, surf-igeriketa proban, salbamenduko sky proban eta Ocean izeneko proban. Bere hurrengo hitzor-

du nagusia distantzia luzeko Espainiako Master Txapelketa izango da, abuztuaren 28tik 29rako asteburuan.

Asteburu gogorra izan da Diazentzat, eta ez proba askotan lehiatu delako bakarrik. Txapelketa antolatu duen SOS Rescue Club-eko presidentea da eta antolakuntzan ere ibili da, beste hainbat lagunegaz batera. Lorturiko emaitzekin pozik dago eta, bere esanetan, baita txapelketak berak "ezin hobeto" irten duelako ere.



Gonzalo Diaz lehenengo egunean Durangon irabazitako domina biekien.

Jokaldia

Ottavio Bottecchia

XIX. mendearen amaieran jaio zen Friuliko Colle Umberto herrian, gosea eta pobrezia nagusi zen garaian. Egoera zail horretan, familia osoak Alemaniako bidea hartu zuen, bizimodu duin baten bila. Bederatzi neba-arrebetan zortzigarrena (horregatik bere izena), lehen mundu gerrak eztanda egin zuen Inperio austro-hungariarra Italian indarrez sartu ondoren etxera itzuli zen, Friulira. Inperioaren aurka aritu zen eta lubakiz-lubaki mezulari moduan ibili zen bizikleta gainean. Behin gerra amaituta eta aurreztutako diruarekin, Frantziara aldegin zuen lanera. Eraikuntzan jardun zuen eta amateur mailako lasterketan parte hartzen hasi zen. Bertan hartu zuen kontzientzia proletario eta sozialista. Erakutsitako gaitasuna ikusita, Automoto-Hutchinson talde profesional



Alfons Arroio
Kirol kazetaria

"Behin gerra amaituta Frantziara joan zen lanera. Bertan hartu zuen kontzientzia proletario eta sozialista"

"1927ean bide bazterrean botata aurkitu zuen laborari batek. Faxistek erail zuten langileen ziklista"

frantziarrak fitxatu zuen. Henri Pelissier handiaren laguntzaile izan zen 1923ko Tourrean eta bigarren amaitu zuen Bottecchiak. Hurrengo urtean, egun baten Pelissierrek maillot horia erantzi eta lurrera bota zuenez, Tourreko zuzendaritzak kanporatu egin zuen. Ondorioz Friulikoak irabazi zuen Tourra. Lehen italiarra izan zen lasterketarik handienean

gailentzen. 1924koa ez ezik, 1925koa ere bereganatu zuen. Italian sona handia hartu zuen, langileen artean bereziki. Preso politikoek Gazeta dello Sporten bitartez jarraitzen zituzten idoloaren balentriak. Italian, Benito Mussolini agintean zen ordurako. Bottecchiaren beldur, diktadoreak Giroan parte hartzea ere debekatu zion. Ziklismoa langiletzat zeukan bere burua eta faxisten mendekuen beldur zen. Bere iragarpenak bete egin ziren. 1927ko maiatzean, entrenatzen ari zela kotxe batek jota hil zen Giovanni anai. Ottaviok, hala ere, isilean lanean jarraitu zuen urte horretako Tourra prestatzen. Sekula parte hartu ez zuen ekitaldia. 1927ko ekainaren 3an bide bazterrean botata aurkitu zuen Bottecchia laborari batek. Bizikleta handik metro batzuetara zegoen. Ospitalera eraman zuten arren, bertan hil zen, 33 urterekin. Faxistek erail zuten langileen ziklista.

DURANGALDE



Urrestei eskalatuz

Untzillatx mendia diagonaletik igota leku zoragarri honetara heltzen da Urkiolako Parke Naturalean. Argazkian Urrestei ikusten da, eskalatzeko toki paregabea. Atzeko aldean, laino artean, Astxiki eta Alluitz mendiak.

KO TXOKOAK!

Garai jauregia

Durangoko Kurutziaga kalean Garai jauregia dago. Estilo eklektiko frantsesekoa da. Orain urte batzuk, herriko liburutegia zegoen bertan. Fatxadara begiratuz gero, 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren aztarnak ikusten dira harri-hormetan. Metrailak eragindako zuloak bertan bizitakoaren lekuko dira.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ATXONDO: Ikuspegi ederrak mendietara. Argitsua. Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. **C.E.E= G 130.000 €**

IURRETA: MASPE: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailu berria. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E= E. 140.000 €**

BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. C.E.E= F ALOKAIKUAN, EROSTOKO AUKERAGAZ. **110.000 €**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen mailako materialekin berriztatua. **C.E.E.= E. 97.500 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. 99.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=F 140.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 210.000 €**

ERROTARITXUENA: 2 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 265.000 €**

IURRETA: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea, egongela eta eskegitokia. Ganbara eta garajea. **C.E.E= E. 160.000 €.**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E=F 145.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G 178.000 €**

MATIENA: Trañabarren. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. **C.E.E=E 198.000 €.** Alokairuan, erosteko aukeragaz.

SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E= F. 226.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 350.000 €**

MATIENA: ESTREINATZEKO. (Tasatua) 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= A. 210.000 €**

B. KAPANAGA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E= G. 125.000 €**

MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G. 120.000 €**

ERRENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihoagaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran. **C.E.E=F 208.000 €.**

SAN AGUSTINALDE. 103 m². DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**

IURRETA: MASPE: 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E=F 160.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila, eraikitze baimenagaz. **250.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitza eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

BERRIZ: BIDEAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m². SALMENTA **175.000 €**

ASK.ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**

ASK.ETORBIDEA: 8.000 €-tik aurrera.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitze. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatoko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com




DURANGO
92,71 m²
MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m²-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.
315.000 € C.E.E: Bidean



ABADIÑO
2 logela
79,7 m²
ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.
212.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
79 m²
3 logela
JUAN DE OLAZARAN: 5 urteko antzinatasuna. 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Argitsua eta leku onean kokatua. Garajea eta 7 m²-ko trastelekua. Ezin hobea.
323.000 € C.E.E: B



ABADIÑO
MENDIOLA AUZOA: 11.200 m²-ko lursaila. Eraikigarria, oinarritzko proiektua bifamiliarra egiteko. Sotoa/Etxabea/Lehenengo solairua. Ezkerreko etxebizitza, 290,45 m² erabilgarri/ Eskumako etxebizitza 289,54 m² erabilgarri.
AUKERA



DURANGO
3 Logela
79 m²
JOSE MARIA DE IPARAGUIRRE: 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
264.000€ C.E.E:E



ARAMAIO
2.564 m²
OLETA: (15 urteko antzinatasuna) Familia bakarreko etxebizitza, 216 m² erabilgarri, 2.564 m²-ko lursaila. Etxabea eta lehenengo solairua. Saloia, sukalde jantzia, lau logela eta bi komun. 20m²-ko portxea. 67 m²-ko garajea. 25 m²-ko eraikin independentea eta negutegia. OSO EGOERA ONEAN. Argitsua (Hegoalde). Otxandiotik 4 kilometroa.
430.000€ C.E.E:E

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=G**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **LEHEN 160.000 € / ORAIN 140.000 € E.E.Z=G**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserrria lurzoruagaz. **290.000 €**

//IURRETA

FAUSTE AUZOA: Baserrria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MAÑARIA

KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZOA: Baserrria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.



HAUXE BAI JENEROAI

MURGILTZE EREDUA ZER DEN, FRANTSES KONSTITUZIONALISMOAREN ARABERA

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO /
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorixonak, **Jakes!**
Zazpi urte ekainaren 7an. Egun ederra pasa eta segi bazterrak alaitzen, artista! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.



Zorionak poxpo! Egun zoragarrixe pasau. Mosu handi-handi bat!



Kuadrillako printzesita bixek gaur urteiek egiten dabez. Zorionak, **Malentxo** eta **izeko Ainho!** Mosu erraldoi bana bixoi.



Zorionak, **Luzia** zure 8. urtebetetzean, egun polita eta alaia izan! Zure aita Unai, ama Izaskun, anaia Eder, lehengusu Irati eta Endika, aitteitte Karlos eta José Ramon, amama Enkarna eta Begoña eta beste senideen partez.



Ekainaren 2an Zaldibarko **Irantzuk** urteak egin zituen. Besarkada eta muxu handi bat zure semeen partez, Oier eta Aitzol, eta zure senarraren eta gurasoen partez. Muxu bat Errioxatik!

Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	ASTELEHENA 7 - 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
09:00-13:30	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 9 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	09:00-22:00
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	EGUENA, 10 - 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki otaegi 3 - ZORNOTZA	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 6 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	

Eguraldia

ZAPATUA 20° / 9° ☁	ASTELEHENA 24° / 11° ☀	EGUAZTENA 26° / 14° ☀
DOMEKA 22° / 12° ☁	MARTITZENA 27° / 12° ☀	EGUENA 24° / 13° ☁

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

“Urkiola kontrolatu eta babestu beharreko altxorra da Durangaldean”

Juankar Andresek ornitologia eta argazkigintza ditu pasio, eta biak uztartzea lortu du *Entre alpinas y marinas* blogean. Azken 20 urteetan ateratako milaka argazki ditu bilduta



Juankar Andres Ibañez de Garayo

Ornitologia eta argazki zalea

DURANGO | 1963

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Ornitologiak betidanik erakarri du Juankar Andres, eta digitalizazioak hori argazkigintzagazko duen zaletasunagaz uztartzea erraztu dio. Orain 20 urte hasi zen txoriei argazkiak ateratzen, Digiscoping teknika erabiltuta (kamera konpaktu eta teleskopio batez). *Entre alpinas y marinas* blogeko argazkirik zaharrenak horrela ateratakoak dira, 40-50 metroko distantziatik. Hamar urtetik hona reflexa erabiltzen du. Mallabian bizi den durangarrak natura fotografiatzen du: landareak, anfiboak, narrastiak... baina txoriak ditu pasio.

Ornitologia zaleak gutxi zaudete...

Hala da. Oso bakarrik sentitu naiz. Orain 20 urte, opor batzuetan, Llobregaten, Deltaren Natura Erre-

serbako zuzendaria ezagutu nuen, Ricardo Gutierrez. Ornitologoa lanbidez, eta Espainiako Ornitologia Elkarte bitxikeria Komiteko kidea. Aho zabalik geratu nintzen, bazen norbait horretatik bizi zena! Bere eskutik sartu nintzen gehiago mundu honetan. Bakarrik sentituzetik inguratuta sentitzera pasatu nintzen. Jon Hidalgo durangarra ere ezagutu dut. Lan handia egin du txoriak aztertzen.

Denbora asko eta pazientzia handia daude argazki bakoitzaren atzean?

Bai. Ia beti. Garrantzitsua da behar den tokian egotea, denbora luzez. Hala ere, gutxi dira ondo aterako diren argazkiak. Mugarrara, Atxartera... joan behar da, txoria etorri arte itxaron, eta kasuen %90ean ez dugu asmatuko. Hiru urtean joan

izan naiz Urkiolara harkaitz-zozo gorriaren bila, eta topatu ez. Halako batean, Untzillatxen aurkitu nuen.

Hiru urtean joan izan naiz Urkiolara harkaitz-zozo gorriaren bila, eta topatu ez. Halako batean, Untzillatxen topatu nuen

Argazki bat lortzeko, zenbat denbora egin duzu gehienez?

Gatx da esatea. Landa-lana egin behar da aurretik: txoria non dagoen jakin behar da, hara joan, zelan mugitzen den ikusi, eta noiz eta non pausatzen den jakin. Zer ja-

ten duen, non lo egiten duen. Hori guzti hori jakin behar da argazki on bat lortzeko. Eta askotan joan behar da txoriaren bila. Baliteke lau ordu itxarotea argazkia ateratzeko, edo txoria ez etortzea. Pirinioetako hiru milako bat igo dut eper zuriaren bila, eta ikusi barik bueltatu naiz. Horixe da ohikoena. **Nahitaezkoa da oharkabea pasatzea.** Bai, inguruaren parte izan behar zara. *Hide*-ak (ezkutalekuak) eskaintzen dira, gaur egun. Janaria ipini eta hegazia etorri arte itxaron behar da. Ordaindu barik, etxean egin daitezke, edo mendian ere bai.

Garrantzitsua da behar den tokian egotea, denbora luzez. Eta, hala ere, gutxi dira ondo aterako diren argazkiak

Kalifornia, Portugal, Azores, Madeira, Finlandia, Norvegia... Ornitologiak hainbat lekutara eraman zaitu.

Familiagaz egin ditut bidaia asko. Baina beti daramat argazkiak ateratzeko ekipoa soinean. Finlandiara eta Norvegiara lagunekin joan nintzen, ornitologia-bidaiak izan ziren. Urtean behin halako bidaia bat egiteko asmoa dut: Kalifornia, Australia, Costa Rica; Txile, Alaska...

Eskualdean badugu altxor berezirik?

Urkiola kontrolatu eta babestu beharreko altxorra da. Horretarako, ezinbestekoa da informazioa. Desagertzeaz dagoen *Lirium Pirineico*-a ikusi genezake bertan. Hegaztiei dagokenez, hor ditugu sai zuria, harkaitz-txoria, elur-txonta edo belatxinga moko horia.

Zein da egin duzun argazkirik gatxena?

Mozolo borealari, Pirinioetako gautxoriari. Neguan joan ginen behin. Gau osoa egon ginen zain, edurragaz. Bi entzun genituen, eta bat ikusi. Baina ez genuen argazkirik lortu. Hurrengo urte bietan ahalegindu ginen, udan. Eta hirugarren urtean lortu genuen.

Zein duzu txoririk kutunena?

Alpino guztiak. Baina bat aukeratzekotan, harkaitz-txoria

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea / Jubilatua



Errota zahar maitea

Apurka-apurka teknologia berriek gure gaztaroan arruntak ziren tresna, lanabes eta eraikinak baztertu dituzte. Eraikuntza horien artean errota ditugu eta Lourdes Iriondori eginiko omenaldian Xabier Leterekin batera osatu zuten Errota Zahar Maitea abestia entzun nuenean nostalgiko jarri nintzen. Urteak atzera eginda herri askotan oso garrantzitsuak ziren abereak eta pertsonak elikatzen. Bertan lortzen zen irinarekin baserri gehienetan zeuden labetan ogi goxo eta naturala egiten zen.

Gure baserrian amamak egiten zituen ogiek usain ahaztezina eta iraupen luzea zituzten eta ez oraingo ogi askok goma eta asma ezinezko zaporea dutenak.

Hara joaten ziren baserriak tokatzen zitzaien egun eta orduan gari, garagar, arto, ... zakuekin. Uraren bultzadarekin traka-traka harriak martxan jartzen ziren eta aleak irin bihurtzen ziren. Gero irin hori taloa, morokila edo ogia bihurtzen zen.

Ikusi zein garrantzia zuten errotek Elorrioren 14 zutik ezagutu ditut eta aitzak esan didanez gutxienez beste hiru gehiago zeuden, baina ez dago beraien lorratzik. 14 horietatik bi baino ez daude martxan; bat Aldapen eta bestea Zenita auzoan.

Urteak dira Elorrioko Udalak Angioko errota museoa bihurtzeko asmoa izan zuela eta ingurua garbitu zuen, baina proiektu polit hori udaletxeko kajoirenen baten lozorroan geratu zen eta oraindik, agian, hor jarraitzen du.

Oso interesgarria izango zen horrelako eraikinak berreskuratzea gure gazteek beraien aurrekoen bizimodua ezagutzeko.

Errota zahar maitea / uraren ertzean, / uraren ertzean da / basati beltzean. / Negar egiten dezu / aleak txetzean. / Ni ere triste nabil / zutaz oroitzean (Lourdes Iriondo – Xabier Lete)

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491